

Xedapen Orokorrak

JAURLARITZAKO LEHENDAKARITZA

Zk-5313

236/1996 DEKRETUA, urriaren 22koa, Eusko Jaurlaritzaren goraipamenak eta ohoreak ematea arautzeko dena.

Maiatzaren 2ko 86/1983 Dekretuaz, «Gernikako Arbolaren Gurutzea - Cruz del Árbol de Gernika» goraipamena sortu zen Euskadiren alde egindako lan bikainagatik eta gizarte, ekonomia eta kulturaren alorrean lortutako aparteko ospeagatik nabarmendu diren pertsoneri saria emateko. Ordutik hona, goraipamen hori da Eusko Jaurlaritzak eman dituen artean garrantzi eta ospe gorena duena.

Urteak joan ahala komenigarria ikusi da goraipamen hori beste maila bateko beste batzuekin osatzea, Eusko Jaurlaritzak bere aitortpena eman diezaien gure elkartean beren lanbidean nabarmendu izanagatik Euskadiri aurrera egiten lagundu dioten herritarrei. Goraipamen horrekin «behar den moduan egindako lana»ri eman nahi zaio aitormena, saridunen lan-eremua edozein izanik ere.

Bestalde, Euskadik kanpoan duen irudia hobetzeko asmoz, argi eta garbi ikusten da komenigarria dela goraipamen berezi bat ezartzea, Euskal Herrikoak izan ez arren, Euskadiren ekonomia, historia eta kultura kanpoan sustatzen berebiziko lana egin duten pertsona edo entitateei eskerrona adierazteko. Euskal Herriarentzat erreferentzia izan diren ezaugarriak eta baloreak agerian jarri izan dituzten entzute handiko kanpotarrei euskal herritarrek aitormena, errespetua eta adiskidetasuna adierazteko modua ere izango litzateke goraipamen hori.

Hori guztia kontutan hartuta, dekretu hau onartzea egokia da, batetik, orain arteko goraipamenak eta ohoreak sendetsi eta agintzeko; eta bestetik, goraipamen berriak sortzeko, «Lan Onari» eta «Lagun Onari» izenekoak, hain zuzen, aurrez aipatutako helburuei erantzuteko. Horiek emateko inguruabarrak, prozedura eta baldintzak ere zehazten dira dekretu honen bidez.

Ondorioz, Lehendakaritzak proposatuta eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1996ko urriaren 22an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

Disposiciones Generales

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

Nº-5313

DECRETO 236/1996, de 22 de octubre, por el que se regula la concesión de Distinciones y Honores del Gobierno Vasco.

Por Decreto 86/1983, de 2 de mayo, fue creada la distinción «Gernikako Arbolaren Gurutzea - Cruz del Árbol de Gernika», al objeto de premiar a aquellas personas que se hubieran destacado por sus relevantes servicios prestados a Euskadi y por su excepcional prestigio en el campo social, económico o cultural. Desde entonces esta condecoración ha constituido la distinción de mayor relevancia y prestigio concedida por el Gobierno Vasco.

A lo largo de los años transcurridos se ha venido manifestando la conveniencia de completar la mencionada distinción con otras de rango diferente, que permitan expresar el reconocimiento del Gobierno Vasco a aquellos ciudadanos de nuestra Comunidad que se hayan distinguido en el ejercicio de su actividad profesional y contribuido con ella al progreso de Euskadi. Con esta distinción se trata de reconocer el trabajo «bien hecho» en cualquiera de los ámbitos en los que los galardonados hayan desempeñado su actividad laboral.

Por otro lado, y con el fin de mejorar la imagen de Euskadi en el exterior, también resulta patente la conveniencia de establecer una distinción específica como muestra de agradecimiento a aquellas personas o entidades que, aun no teniendo la condición política de vascos, han contribuido significativamente a su promoción económica, histórica o cultural en el exterior. Se trataría de una distinción que permita expresar el reconocimiento, respeto y amistad de los vascos a personalidades exteriores de reconocido prestigio, que han reflejado en su trayectoria cualidades y valores que han servido de referencia al Pueblo Vasco a lo largo de su historia.

En razón de estas consideraciones, procede aprobar el presente Decreto, que permite, de un lado, ratificar y ordenar las distinciones y honores actualmente existentes, y, de otro, promover la creación de nuevas distinciones, singularmente los títulos «Lan Onari» y «Lagun Onari», que respondan a los objetivos anteriormente mencionados, estableciendo, además, las circunstancias, el procedimiento y los requisitos necesarios para la concesión de todas ellas.

En su virtud, a propuesta de la Presidencia, y previa deliberación y aprobación de Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 22 de octubre de 1996,

XEDATU DUT:

1. *atala.* - Dekretu honen bidez «LAN ONARI» eta «LAGUN ONARI» goraipamenak eratzen dira eta «GERNIKAKO ARBOLAREN GURUTZEA - CRUZ DEL ÁRBOL DE GERNIKA» izenekoa sendesten da, horiek emateko bete behar diren gora-beherak eta baldintzak arautzen direlarik.

I. ATALBURUA. - «GERNIKAKO ARBOLAREN GURUTZEA - CRUZ DEL ÁRBOL DE GERNIKA».

2. *atala.* - Maiatzaren 2ko 86/1983 Dekretuaz sortu zen «GERNIKAKO ARBOLAREN GURUTZEA - CRUZ DEL ÁRBOL DE GERNIKA» goraipamenaren helburua hau da: Euskal Herrikoak edo euskal jatorria izanik -orain politikoki egoera hori izan edo ez-, Euskadiren nortasuna defendatzen eta berreskuratzen nabarmendu direnei eta, orokorrean, gizarte, ekonomia eta kulturaren alorrean egindako lan bikainagatik eta lortu duten ospeagatik nabarmendu direnei saria ematea.

3. *atala.* - 1.- Gurutzea, I. eraskinean agertzen denaren modukoa, esmalte gorrikoa izango da, ertzetan urrezkoa izango dela. Erdian, zirkulu batean, «Gernikako Arbola» izango du, Bizkaiko Jaurerriko Armarrarian agertzen den moduan, berdez esmaltaturik, urrez «BETI ZUTIK» inskripzioa izango duela. Atzealdean inskripzio bera izango du baina «Gernikako Arbola» beharrean, Eusko Jaurlaritzaren armari heraldikoa, «Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco» inskripzioaz. Halaber, atzealdean goraipatu den pertsonaren izen-abizenak eta goraipamena jaso duen eguna adieraziko dira.

2.- Goraipamena euskal herritarrei ematen zaienean hiru kolorekoa izango da, ikurriñaren koloreekin; beste kasu batzuetan aldiz, berdea.

4. *atala.* - «GERNIKAKO ARBOLAREN GURUTZEA - CRUZ DEL ÁRBOL DE GERNIKA» tituluak ohorezko izaera du eta hori jasotzen dutenek txit gorenaren tratamendua edukiko dute, goraipamen horri berez dagozkion ohorez gain. Horiek bizitza osorako izango dira, dekretu honetako 20. atalean aurrikusitako balioagabetearen kaltetan gabe.

5. *atala.* - «GERNIKAKO ARBOLAREN GURUTZEA - CRUZ DEL ÁRBOL DE GERNIKA» titulua mugatua da, ezingo baita bat baino gehiago eman urtean.

6. *atala.* - Hil ondoren ere eman daiteke titulua eta emateko unean izendatuari dagozkion ohoreak eskaini beharko zaizkio alargunari edo kausadunei.

II. ATALBURUA. - «LAN ONARI» GORAIPAMENA

7. *atala.* - «LAN ONARI» tituluak eguneroko lanean izandako dedikazioagatik, jarraikortasunagatik eta ekimena edukitzeagatik nabarmendu diren euskal herritarrei ematen die aitormena, beti ere, bere merezimenduak ageri-agerikoak badira.

Goraipamen hau jasotzen dutenek txit argiaren tratamendua izango dute.

DISPONGO:

Artículo 1. - Por el presente Decreto se crean las distinciones «LAN ONARI» y «LAGUN ONARI», y se ratifica la distinción «GERNIKAKO ARBOLAREN GURUTZEA - CRUZ DEL ÁRBOL DE GERNIKA», regulándose las circunstancias y procedimiento para su concesión.

CAPÍTULO I. - «GERNIKAKO ARBOLAREN GURUTZEA - CRUZ DEL ÁRBOL DE GERNIKA».

Artículo 2. - La distinción «GERNIKAKO ARBOLAREN GURUTZEA - CRUZ DEL ÁRBOL DE GERNIKA», creada por Decreto 86/1983, de 2 de mayo, tiene por objeto premiar a los vascos o personas de origen vasco, tengan o no esta condición política, que se hayan distinguido por sus relevantes servicios prestados a Euskadi en defensa de su identidad y restauración de su personalidad y, en general, por su labor excepcional y prestigio en el campo social, económico o cultural.

Artículo 3. - 1.- La Cruz, según modelo que figura en el Anexo I, será de esmalte rojo rebordeada en oro. Sobre un centro circular llevará el «Árbol de Gernika», tal y como figura en el escudo del Señorío de Bizkaia, esmaltado en color verde; y en oro la inscripción «BETI ZUTIK». En el reverso aparecerá la misma inscripción, y en vez del «Árbol de Gernika», el escudo del Gobierno Vasco en su versión heráldica con la inscripción «Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco». Asimismo, en el reverso se hará constar el nombre y apellidos de la persona distinguida y la fecha de entrega.

2.- Cuando se otorgue a ciudadanos vascos la cinta será tricolor, con los colores de la ikurriña, y, en otros casos, de color verde.

Artículo 4. - El título de «GERNIKAKO ARBOLAREN GURUTZEA - CRUZ DEL ÁRBOL DE GERNIKA» tiene carácter honorífico, correspondiendo a las personas distinguidas el tratamiento de Excelentísimo/a, y los honores inherentes a tal distinción, que conservarán con carácter vitalicio, sin perjuicio de lo previsto sobre revocación en el artículo 20 de este Decreto.

Artículo 5. - El título de «GERNIKAKO ARBOLAREN GURUTZEA - CRUZ DEL ÁRBOL DE GERNIKA» tiene carácter restrictivo, no pudiendo otorgarse más de uno al año.

Artículo 6. - La distinción podrá ser otorgada a título póstumo, debiendo prestarse en el momento de la entrega los honores correspondientes al designado, en la persona de su cónyuge viudo o causahabientes.

CAPÍTULO II. - «DISTINCIÓN LAN ONARI».

Artículo 7. - El título «LAN ONARI» reconoce a los vascos que se hayan distinguido de modo extraordinario por su dedicación, constancia y espíritu de iniciativa en el desempeño de su actividad profesional, siempre que sea patente el nivel de sus méritos.

Las personas condecoradas con esta distinción tendrán el tratamiento de Ilustrísimo/a.

8. *atala*.- Goraipamen honen tituluagatik domina bat -II. eraskinean agertzen dena- jasoko da. Honelakoa izango da:

- Aurrealdea: domina doratu bat, erdizirkularra, goi aldean, ikoroskien bidez ikurriña irudikatzen duena. Erdian, haritz baten ostoa eta engranaje bat, euskal gizarteari aurrera egiten lagundu izana sinbolizatuz. «LAN ONARI» inskripzioa, engranajearen gainean

- Atzealdea: dominaren atzeko aldean, erliebe baxuan, Eusko Jaurlaritzaren armari heraldikoa dago, «Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco» inskripzioaz eta domina eman deneko egunaz. Goialdean leku bat utziko da goraipamena jaso duen pertsonaren izen-abizenak jartzeko.

- Belarria: doratua izango da.

- Zinta: hiru kolorekoa izango da, ikurriñak dituen koloreekin.

III. ATALBURUA.- «LAGUN ONARI» GRORAIPAMENA

9. *atala*.- 1.- «LAGUN ONARI» tituluak aitormena ematen die Euskal Herrikoak izan ez arren, beren ekintzekin Euskadiren alde egin duten pertsonen eta entitateen, euskal ekonomia sustatzen eta euskal historia eta kultura kanpoan ezagutarazten egindako lanagatik.

2.- Goraipamen honek modalitate hauek ditu:

- Pertsona fisikoentzat: domina.
- Entitateentzat: ohorezko plaka.

Domina -eredua III.1 eraskinean dago- honelakoa da:

- Aurrealdea: domina doratua, zirkularra, kanpoko koroa erliebezkoa dela. Erdian agurra egiten ari den dantzari baten irudia dago eta inguruan, goialdean, «Euskal Herriak» jarriko du, eta behealdean, «Lagun Onari». Inskripzio biek zirkulu bat deskribatzen dute dantzariaren inguruan eta bi lauburuz banaturik daude.

- Atzealdea: dominaren atzeko aldean Eusko Jaurlaritzaren armari heraldikoa dago, «Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco» inskripzioaz eta domina eman deneko egunaz. Goiko aldean leku bat utziko da goraipamena jaso duen pertsonaren izen-abizenak jartzeko.

- Belarria: doratua izango da.

- Zinta: hiru kolorekoa izango da, ikurriñak dituen koloreekin.

Ohorezko plaka -eredua III.1 eraskinean dago- honelakoa da:

Doratua, zirkularra, kanpoko koroa erliebezkoa dela. Goialdean, «Euskal Herriak» jarriko du, eta behealdean, «Lagun Onari», agurra egiten ari den dantzari baten irudia inguratuz. Inskripzio biek zirkulu bat deskribatzen dute dantzariaren inguruan eta bi lauburuz banaturik daude.

Artículo 8.- El distintivo de este título estará constituido por una Medalla, cuyo modelo figura en el Anexo II, y cuya descripción es la siguiente:

- Anverso: Medalla dorada de forma semicircular que en la parte superior mediante aspas representa la ikurriña. En el centro, una hoja de roble y un engranaje simbolizan la contribución al progreso de la Sociedad Vasca. Sobre el engranaje, la inscripción «LAN ONARI».

- Reverso: En el reverso de la medalla irá, en bajo relieve, el Escudo del Gobierno Vasco en su versión heráldica con la inscripción «Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco» y la fecha de entrega. En la parte superior quedará un espacio para grabar el nombre y apellidos de la persona distinguida.

- Hebilla: La hebilla será dorada.

- Cinta: La cinta será tricolor con los colores de la ikurriña.

CAPÍTULO III- «DISTINCIONES LAGUN ONARI».

Artículo 9.- 1.- El título «LAGUN ONARI» reconoce a personas físicas o entidades que, aun no teniendo la condición política de vascos, en el desempeño de sus actividades hayan contribuido significadamente al beneficio de Euskadi, a su promoción económica y a la divulgación histórica y cultural de lo vasco en el exterior.

2.- Esta distinción comprende las siguientes modalidades:

- Para personas físicas: Medalla.
- Para entidades: Placa de Honor.

La Medalla, cuyo modelo se reproduce en el Anexo III.1, tiene la siguiente descripción:

- Anverso: Medalla dorada de forma circular con un reborde de relieve en su corona exterior. En el centro llevará la figura de un Dantzari en actitud de saludo, rodeándole las inscripciones «Euskal Herriak», en su parte superior, y «Lagun Onari», en su parte inferior. Las dos inscripciones describen un círculo sobre el dantzari, y están separadas por dos lauburus.

- Reverso: En el reverso de la medalla irá grabado el escudo heráldico del Gobierno Vasco, con la inscripción «Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco», y la fecha de entrega. En la parte superior quedará un espacio para grabar el nombre y apellidos de la persona distinguida.

- Hebilla: La hebilla será dorada.

- Cinta: La cinta será tricolor con los colores de la ikurriña.

La Placa de Honor, cuyo modelo se reproduce en el Anexo III.1, tiene la siguiente descripción:

Será dorada de forma circular con un reborde de relieve en su corona exterior. En la parte superior llevará la inscripción «Euskal Herriak», en la parte inferior la inscripción «Lagun Onari», rodeando la figura de un dantzari en actitud de saludo. Las dos inscripciones describen un círculo sobre el dantzari, y están separadas por dos lauburus.

Dantzariaren gainean Eusko Jaurlaritzaren armari heraldikoa dago bere izen ofizialarekin. Beheko aldean leku bat utziko da goraipamena jaso duen entitatearen izena eta plaka eman deneko eguna jartzeko.

10. atala.- 1.- Historian zehar Euskal Herriak oso estimatuak izan dituen birtuteak eta baloreak agertzeagatik euskal herritarren lagunak direla aitortu nahi zaien pertsona fisiko nahiz juridikoei ere -euren eremua gizartea, kultura, ekonomia edo politika dela- eman ahal izango zaie «LAGUN ONARI» goraipamena.

2.- Goraipamen honek bi modalitate izango ditu:

- Pertsona fisikoentzat: domina.
- Entitateentzat: ohorezko plaka.

Domina -eredua III.2 eraskinean dago- oktagonala da eta 9.2. puntuan zehaztutako ezaugarri berberak ditu.

Ohorezko plaka -eredua III.2 eraskinean dago- obaldua da eta 9.2. puntuan zehaztutako plakaren ezaugarri berak ditu.

11. atala.- «LAGUN ONARI» goraipamena, 15. atalean eta hurrengoetan zehaztutako prozeduraz gain, lehendakariaren dekretuz ere eman daiteke adeitasun eta elkarrekikotasunezko arrazioak direla-eta.

IV. ATALBURUA - XEDAPEN OROKORRAK

12. atala.- Dekretu honen bidez araututako goraipamenak eta ohoreak dekretu-bidez emango dira, lehendakariari dagokiolarik sarituak jendaurrean eta dotoretasunez omentzea.

13. atala.- Goraipamen horiek ezingo zaizkie eman Euskal Administrazio Publikoetan kargurik dutenei, lotura horrek irauten duen artean.

14. atala.- Goraipamen honen izaera ohorezkoa baino ez da; beraz, ez du ekonomia-eskubiderik sortuko.

Goraipemana pertsona jakin bati ematen zaio eta ezin da eskualdatu. Goraipamena emateak eskubide hauek dakartza:

- Tituluaren ziurtagiria jasotzea, Eusko Jaurlaritzako lehendakariaren sinaduraz baimendua.
- Saria erakustea.
- Interesatuak egiten dituen argitalpen, agiri eta aurrekarietan goraipamena jaso izana jartzea.

15. atala.- Dekretu honen bidez araututako goraipamenak eman baino lehen -adeitasun eta elkarrekikotasunezko arrazioak direla-eta Lehendakariak emandakoe-tan salbu-, espedientea izapidetu beharko da goraipamena emateko kontutan hartu diren inguruabarrak zehazteko.

16. atala.- Goraipamenak emateko espedienteei hasiera ematea, honela egin daiteke:

Sobre el dantzari irá el escudo heráldico del Gobierno Vasco con su denominación oficial y en la parte inferior quedará un espacio para grabar el nombre de la entidad distinguida y la fecha de entrega.

Artículo 10.- 1.- Asimismo, la distinción «LAGUN ONARI» podrá concederse a aquellas personas físicas o jurídicas de reconocido prestigio en los ámbitos social, cultural, económico o político, a los que se quiere reconocer como amigos de los vascos, por reflejar en su trayectoria virtudes y valores muy estimados por el Pueblo Vasco a lo largo de la historia.

2.- Para este supuesto la distinción comprende las siguientes modalidades:

- Para personas físicas: Medalla.
- Para entidades: Placa de Honor.

La Medalla, cuyo modelo se reproduce en el Anexo III.2, tiene idéntica descripción que la detallada en el artículo 9.2, sobre una forma octogonal.

La Placa de Honor, cuyo modelo se reproduce en el Anexo III.2, tiene idéntica descripción que la Placa de Honor detallada en el artículo 9.2, sobre fondo oval.

Artículo 11.- La concesión de la distinción «LAGUN ONARI» podrá producirse, además de por el procedimiento señalado en el artículo 15 y siguientes, por Decreto del Lehendakari por motivos de cortesía o reciprocidad.

CAPÍTULO IV - DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 12.- La concesión de las Distinciones y Honores aquí regulados se hará mediante Decreto, correspondiendo al Lehendakari la entrega pública y solemne del Título a los galardonados.

Artículo 13.- Ninguna de estas distinciones podrá ser otorgada a personas que desempeñen cargos en las Administraciones Públicas Vascas mientras subsista dicho vínculo.

Artículo 14.- El otorgamiento de estas distinciones tiene carácter exclusivamente honorífico sin que, por tanto, genere derecho económico alguno.

Las distinciones tienen, asimismo, carácter personal e intransferible, y su concesión confiere los siguientes derechos:

- a la expedición del título acreditativo, autorizado con la firma del Lehendakari del Gobierno Vasco.
- a exhibir el galardón otorgado.
- a hacer constar la condición de distinguido en las publicaciones, documentos o antecedentes del interesado.

Artículo 15.- La concesión de las distinciones reguladas en este Decreto irá precedida de la instrucción del correspondiente expediente, que sirva para determinar las circunstancias que aconsejen la concesión, a excepción de las distinciones concedidas por el Lehendakari por motivos de cortesía o reciprocidad.

Artículo 16.- Los expedientes de concesión podrán iniciarse:

a) Ofizioz, lehendakariak edo Eusko Jaurlaritzako Kontseiluko edozein kidek proposatuta.

b) Beste instituzio publiko edo pribatu batzuk eskatuta.

Espedientea ezingo da izapidetu interesatuak berak eskatuta.

Ekimenak arrazoitua egon beharko du, eta sei hilabeteko epean lehendakariak ez badio ebazpenik ematen, ukatutzat jo beharko da eskabidea.

17. atala. - Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzako Idazkaritzak izapidetuko ditu espedienteak, honako alderdi hauek hartu beharko direlarik kontutan:

a) hautagaiaren merezimenduak eta inguruabarrak.

b) Merezimendu horiek ziurtatzen dituzten agiriak.

c) Kasuan kasu, egokitzat jotzen diren txostenak.

18. atala. - Espedientean dauden xehetasunak eta txostenak kontutan hartuta, lehendakariak nola horiek artxibatzea hala Jaurlaritzaren Kontseiluari proposamenaren egitea erabaki dezake, aurretik interesatuak, eta, hilda egonez gero, kausadunek adostasuna eman ondoren.

19. atala. - Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzako Idazkaritzan, dekretu honen bidez araututako Goraipamenak eta Ohoreak Erregistratzeko Liburu bat prestatuko da, hau jaso beharko delarik bertan:

a) Espedienteari hasiera eman zaion eguna.

b) Proposatutako pertsonaren xehetasunak, interesatuak berak jakinaraziko dituelarik galde-sorta baten bitartez -urtero berrituko da-.

c) Goraipamena eman duen xedapena eta data.

d) Kondekorazioa zein egunetan ezarri den.

e) Beharrezkotzat jotzen diren gainerako datu guztiak.

Erregistroen Liburua sekziotan banatuko da, gorai-pamen bakoitzeko sekzio bat egongo dela.

20. atala. - Goraipamen hauek baliogabetu egin daitezke Justizi epaitegien bidez -zigor-epaitzarekin nahiz gabe-, goraipamena jaso duenaren jokabide publikoa zein pribatua ez dela ohoragarria probatzen bada inongo zalantzarik gabe.

Baliogabetzea goraipamena emateko aurrikusitako prozedura beraz burutuko da.

GEHIGARRIZKO XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Eusko Jaurlaritzako lehendakariak, gizarte, kultura, ekonomia eta merkataritzako topaguneetan, aitormenezko eta adiskidetasunezko diplomak eman ahalko dizkie beren eguneroko lanean eta beren ekimenetan lortutako merezimeduaz nabarmentzen diren pertsonen.

Jaurlaritzaren Kontseiluari diploma horiek ematearen berri emango zaio eta Erregistroen Liburuan jasoko da sekzio berezi batean.

a) De oficio, a propuesta del Lehendakari o de cualquiera de los miembros del Consejo del Gobierno Vasco.

b) A instancia de otras Instituciones públicas o privadas.

La tramitación de los expedientes no podrá iniciarse a instancia del propio interesado.

La iniciativa deberá ser motivada, entendiéndose desestimada si en el plazo de seis meses el Lehendakari no se ha pronunciado sobre ella.

Artículo 17. - La tramitación de los expedientes se realizará por la Secretaría de la Presidencia del Gobierno Vasco, debiendo recabarse en su instrucción:

a) Los méritos y circunstancias que concurren en el candidato.

b) La documentación acreditativa de dichos méritos.

c) Los informes que, en cada caso, se consideren oportunos.

Artículo 18. - A la vista de los datos e informes que figuran en el expediente, el Lehendakari decidirá bien su archivo o la elevación de la propuesta de concesión al Consejo de Gobierno, previa la conformidad expresa del interesado o, en caso de fallecimiento, la de sus causahabientes.

Artículo 19. - En la Secretaría de la Presidencia del Gobierno Vasco se llevará un Libro de Registro de las Distinciones y Honores regulados en el presente Decreto, en el que se hará constar para cada caso:

a) Fecha de iniciación del expediente.

b) Datos personales de la persona propuesta, que serán comunicados por éste a través del correspondiente cuestionario que se actualizará anualmente.

c) Disposición que le otorga la distinción y su fecha.

d) Fecha de imposición de la condecoración.

e) Todos aquellos datos que se consideren necesarios.

El Libro de Registro estará dividido en secciones, una para cada una de las distinciones.

Artículo 20. - Las presentes distinciones podrán ser revocadas cuando existan hechos probados, medie fallo condenatorio o no por parte de Tribunales de Justicia, que no dejen lugar a dudas sobre la conducta poco honorable, pública o privada, del adjudicatario de la distinción.

La revocación se llevará a cabo por el mismo procedimiento previsto para la concesión.

DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA

El Lehendakari del Gobierno Vasco podrá, con motivo de encuentros sociales, culturales, económicos y comerciales, expedir diplomas de reconocimiento y afecto a personas que por su meritoria labor destaquen en su actividad y en sus iniciativas.

De la concesión de estos diplomas se informará al Consejo de Gobierno y se hará constar en una sección específica del Libro de Registro.

GEHIGARRIZKO XEDAPENETATIK BIGARRENA

Eusko Jaurlaritzak, EAEko Administrazio Orokorak kudeatutako zerbitzu eta establezimenduei ohoretutakoen izena eman ere eman ahal izango die gorai-pamena pertsoneri eta instituzioei.

GEHIGARRIZKO XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Poliziaren alorrean eman beharreko gorai-pamenak Polizi Lanari Aitormena Emateko Domina sortzeari, baldintzei eta eskubideei buruzko otsailaren 25eko 44/1986 Dekretuaz eta indarrean dauden gainerako xedapenez arautuko dira.

INDARGABETZE XEDAPENA

«GERNIKAKO ARBOLAREN GURUTZEA» gorai-pamena sortzeko den maiatzaren 2ko 86/1983 Dekretua indargabeturik geratzen da, bai eta dekretu honetan araututakoaren aurkakoak diren xedapen guztiak ere.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. - Jaurlaritzako Lehendakariak dekretu hau aplikatzeko beharrezkoak diren osagarriko xedapenak eman ahal izango ditu.

Bigarrena. - Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1996ko urriaren 22an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

DISPOSICIÓN ADICIONAL SEGUNDA

El Gobierno Vasco podrá distinguir también honoríficamente a personas o instituciones dando su nombre a servicios o establecimientos que gestione la Administración General de la CAPV.

DISPOSICIÓN ADICIONAL TERCERA

Las distinciones en el ámbito policial seguirán reguladas por el Decreto 44/1986, de 25 de febrero, por el que se crea la Medalla al Reconocimiento de la Labor Policial, condiciones y derechos de la misma, y por las demás disposiciones en vigor.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 86/1983, de 2 de mayo, por el que se crea la distinción de la «CRUZ DEL ÁRBOL DE GERNIKA», y cuantas disposiciones se opongan a lo regulado en el presente Decreto.

DISPOSICIONES FINALES


Primera. - La Presidencia del Gobierno-Lehendakariak podrá dictar las disposiciones complementarias precisas para la aplicación de este Decreto.

Segunda. - El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 22 de octubre de 1996.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

I. ERASKINA/ANEXO I

«GERNIKAKO ARBOLAREN GURUTZEA» GORAIPAMENA
DISTINCIÓN «CRUZ DEL ÁRBOL DE GERNIKA»

Aurrealdea/ Anverso

Atzealdea/ Reverso

Materialak: zilarrezko oinarria, 925 milarenekoa, eta 24 k.ko lege-urrez xeflatua.

Lodiera: 5 mm., kanpo neurrikoa.

Koloreak

Barreneko gurutzea: gorri esmaltatua. Pantonea: 1.807 C.

Erdialdeko zirkuluak, aurrealdea eta atzealdea: urrezko zirkuluaren gain armarria, arbola eta gurutzea, koloretan esmaltaturik.

Letrak: erliebean.

Persona izena: erliebe baxuan.

Marrazkien profila: urrea.

Euskarria eta oinarria

Belarria, heldulekua eta birreldulekua, zilarrezkoa, urrez xaflatua.

Bi modelutako zinta, bata hiru kolorekoa, ikurriñak dituen koloreekin eta bestea, berdea.

Neurria

Gurutzearen neurria: 45 x 45 mm.

Materiales: Base en plata de 925 milésimas y chapado en oro de ley de 24 k..

Grosor: 5 mm. de medida exterior.

Coloreado

Fondo de cruz: Esmaltado en rojo. Pantone: 1.807 C.

Círculos centrales, anverso y reverso: Cruz, árbol y escudo esmaltados en sus colores sobre círculo en oro.

Letras: En relieve.

Personalización: En bajo relieve.

Perfil de los dibujos: Oro.

Sujeción y soporte


Hebilla, asa y reasa en plata y chapado en oro.

Cinta en dos modelos, uno tricolor con los colores de la Ikurriña, y otro de color verde.

Tamaño

Tamaño de la cruz: 45 x 45 mm.

II. ERASKINA/ANEXO II

«LAN ONARI» GORAIPAMENA
DISTINCIÓN «LAN ONARI»

Aurrealdea/Anverso

Atzealdea/Reverso

Materialak: zilarrezko oinarria, 925 milarenekoa, eta 24 k.ko lege-urrez xaflatua.

Lodiera: 3 mm.

Koloreak

Esmaltatutako haritzaren ostoa. Pantonea: 355 U.

Esmaltatutako engranajea. Pantonea: 877 U

Letrak: erliebean.

Pertsonaren izena: erliebe baxuan.

Euskarria eta oinarriak

Belarria, heldulekua eta birreldulekua zilarrezkoak, urrez xaflaturik.

Hiru koloreko zinta, ikurriñak dituen koloreekin.

Neurria:

Kanpoko neurria: 45 x 45 mm.

Materiales: Base en plata de 925 milésimas y chapado en oro de ley de 24 k..

Grosor: 3 mm.

Coloreado

Hoja de roble esmaltada. Pantone 355 U.

Engranaje esmaltado. Pantone 877 U

Letras: En relieve.

Personalización: En bajo relieve.

Sujeción y soporte

Hebilla, asa y reasa en plata y chapado en oro.

Cinta tricolor con los colores de la Ikurrina.

Tamaño

Tamaño exterior: 45 x 45 mm.

III.1 ERASKINA/ANEXO III.1

«LAGUN ONARI» GORAIPAMENA
DISTINCIÓN «LAGUN ONARI»

Domina/Medalla



Aurrealdea/Anverso

Atzealdea/Reverso

Materialak: zilarrezko oinarria, 925 milarenekoa, eta 24 k.ko lege-urrez xaflatua.

Lodiera: 3 mm.

Koloreak

Esmaltatutako irudia. Pantonak: WARM RED U - 355 U - COOL GRAY 9U - 877 U - 142 U - 471 U - BELTZA - ZURIA.

Letrak: erliebean.

Pertsonaren izena: erliebe baxuan.

Euskarriak eta oinarriak

Belarria, heldulekua eta birreldulekua zilarrezkoak, urrez xaflaturik.

Hiru koloreko zinta, ikurriñak dituen koloreekin.

Neurria:

Kanpoko neurria: 45 x 45 mm.

Materiales: Base en plata de 925 milésimas y chapado en oro de ley de 24 k..

Grosor: 3 mm.

Coloreado

Figura esmaltada. Pantones WARM RED U - 355 U - COOL GRAY 9U - 877 U - 142 U - 471 U - NEGRO - BLANCO.

Letras: En relieve.

Personalización: En bajo relieve.

Sujeción y soporte

Hebilla, asa y reasa en plata y chapado en oro.

Cinta tricolor con los colores de la Ikurrina.

Tamaño

Tamaño exterior: 45 x 45 mm.

Ohorezko plaka/*Placa de Honor*

Materialak: zilarrezko oinarria, 925 milarenekoa, eta 24 k.ko lege-urrez xaflatua.

Lodiera: 1 mm.

Beheko ezpaina erliebean.

Estanpazioko manipulaturia

Koloreak

Esmaltatutako irudia. Pantonak: WARM RED U - 355 U - COOL GRAY 9U - 877 U - 142 U - 471 U - BELTZA - ZURIA

Letrak: erliebean.

Pertsonaren izena: erliebe baxuan.

Neurria

Neurria: 160 mm.ko diametroa.

Materiales: Base en plata de 925 milésimas y chapado en oro de ley de 24 k..

Grosor: 1 mm.

Labio exterior en relieve.

Manipulado de estampación.

Coloreado

Figura esmaltada. Pantones WARM RED U - 355 U - COOL GRAY 9U - 877 U - 142 U - 471 U - NEGRO - BLANCO.

Letras: En relieve.

Personalización: En bajo relieve.

Tamaño

Tamaño: 160 mm. de diámetro.

III.2 ERASKINA/ANEXO III.2

«LAGUN ONARI» GORAIPAMENA
DISTINCIÓN «LAGUN ONARI»

Domina/Medalla




Aurrealdea/Anverso

Atzealdea/Reverso

Dominarentzat III.1 eraskinean jasotako ezaugarri tekniko berberak ditu; oktogonalak izango da.

Con especificaciones técnicas idénticas que las recogidas en el anexo III.1 para la Medalla, sobre un fondo octogonal.

Ohorezko plaka/ *Placa de Honor*



Ohorezko plakarentzat III.1 eraskinean jasotako ezaugarri tekniko berberak ditu; obalatua izango da, 165 x 135 mm.koa izango dela.

Con especificaciones técnicas idénticas que las recogidas en el anexo III.1 para la Placa de Honor, sobre un fondo oval, con medidas de 165 x 135 mm.